

## **6. ildo: ERROTULUAK, TOLDOAK ETA IBILGAILU KOMERTZIALAK EUSKARAZ IPINTZEKO DIRULAGUNTZAK**

### **1. NORENTZAT IZANGO DIRA DIRULAGUNTZAK**

- Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduak.
- Herriko elkarteak.
- Publizitatearen gaineko udal zerga kobratzeko Zerga Ordenantza aplikatzen zaien bestelako erakundeak, ofizialak ez direnak.
- Orokorrean, establezimendua, egoitza edo denda kalean duten eta hizkuntza paisaian eragin nabarmena duten saltokiak, bulegoak eta bestelakoak, adibidez, lanbide liberalak, autonomoak. Kanpo geratzen dira finantza erakundeak, enpresa handietako ordezkariak-bulegoak eta antzekoak.

### **2. ZER DA DIRUZ LAGUNDUKO DENA**

Dirulaguntza honako elementu hauek jaso ahalko dute:

- Errotuluak.
- Toldoak edo olanak.
- Ibilgailu komertzialen errotulazioa.
- Establezimenduetako pertsianen errotulazioa.
- Biniloak.
- Kaleko hizkuntza paisaian eragin nabarmena duten bestelako euskarriak.

### **3. ZENBATEKOAK DIRA DIRULAGUNTZAK**

<b>A) Euskara hutsean</b>	<b>Euskara hutsez</b> idatzita dagoen errotulazio elementu bat jartzen duenari, horren <b>%50</b> ordainduko zaio, <b>gehienez, 360 euro</b> .
<b>B) Ele bietan</b>	<b>Ele bietan</b> , idatzita dagoen errotulazio elementu bat jartzen duenari, horren <b>%30</b> , <b>gehienez 180 euro</b> ordainduko zaio, <b>beti eta</b> elebitasun pizgarriaren irizpidea erabiltzen badu, hau da, <b>euskarazko testuak, bai tamainagatik, tokiagatik edo azpimarratuta egoteagatik, lehenetsuneko trataera badu</b> .

### **4. KONTUAN HARTU BEHARREKOAK**

4.1. A) eta B) arauak kartel edo **elementu bakoitzari** aplikatuko zaizkio. Beraz, denda batek, errotulu bat baino gehiago jarri dezake, bere fatxadak hala eskatzen badu.

4.2. **Ezin izango** dute A) eta B) ataletan azaltzen den dirulaguntzarik lortu, **bakarrik izena, edo abizena**, edo izen-abizenak dituzten errotuluek.

4.3. **Ez du dirulaguntzarik jasoko txarto idatzita** edo oker gramatikarik duen errotulurik (honetakoak gerta ez daitezkeen irakurri ondoren datorren 4. puntua).

4.4.- Udalak bere Euskara Zerbitzuaren bitartez, **itzulpengintza eta aholkularitza zerbitzua eskainiko du doan**; eta horren berri emango die interesa dutenei.

### **5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

<b>5.1.- Dirulaguntza eskaera</b> <b>Dirulaguntza eskaera - Euskara Zerbitzua</b> izeneko inprimakia beteta (ikus eranskina), kontu korrontearen zenbakia ( <b>IBAN kodeari dagozkion 24 digitu</b> ) jasota utziz.
<b>5.2.- Faktura originala</b> Errotulua, olana, ibilgailu komertziala... euskaraz jarri dela ziurtatzeko <b>fakturek 2021 edo 2022ko data</b> beharko dute izan.
<b>5.3.- Argazkiak</b> Aldatutako errotulu edo elementuaren <b>bi argazki</b> .

**Zerga betebeharrak egunean** izatea: eskatzaileak besterik adierazten ez badu, Getxoko Udalak ofizioz ikuskatuko du eskatzaileak ez duela zorrik Gizarte Segurantzarekin, Bizkaiko Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin.

Eskatzaileak kontsulta hauen guztiak edo zati batzuk ikuskatzearen kontra dagoela adierazi ahal du eskaera orrian bertan. Aurka dagoela adierazten badu eskaera elektronikoa erantsi beharko ditu eskatzen zaizkion dokumentuak.